

SENDAGAI UGARIEGIERIA

Sendagaiak, botikak, garestiegi jarri zaizkigu, ta onek kalte aundia sortzen diti giza-diari; orasuntua zaillagoa egiten baitzaigu orrela. Orrez gainera, Estaduei gagesitu ta nastu egiten baitzaie, osasun-aseguruen eralgintza. Orregatik, eztabaida bizia sortu da-ministruen mailian piztuta, baiña erri-mailian ere bere eraginia izan duana-ta eztabaida orren ezaguera asko komeni zaigu.

Aurrena jakin bear dana, Espainia-n degun Sendagai Ugarietgia da. Beste erriekiko, alde aundia dago gure artean ontan. Zeatz jakitea ez da errez; baiña dirudienez, Espainia-n ditugun Sendagai zerrendak orgei ta amar millatik gorra ditugu. Alemania da ontan botika bereziet sarria; ta ala ere, an iru milla sendagai zerhait goraka dira dituzten botika aparteko guziak.

Ikusten degun bezela, gure ta beste erri aurreratuetako alde oso aundia da sail ontan. Sendalari guziak ondo dakite, sendagai baten eraginia ezagutzen degunean, oso gutxierekin betetzen dira sendagai berri orren sorkariak. Ta egunetik egunera, sendagai berriak eta aien ordezkari berriak geitzen ari zaizkigu. Beraz, gure arteko sendagai eta sendagailentziak, neurri gabe ugaltzen ari dira.

Gero, poliki-poliki jakiten degu, eskeintzen dizkiguten millaka sendagai oiek, guziak berdinak dirala. Alemania-tik, Holanda-tik eta Ipar-Ameriketatik ekartzen dituzte sendagai oientzako bear diran gaiak, eta emen ez dute ezer asmatzen. Egiten digutena, ua da bakarrik: kanpotik ekarritako sendagai oiek milla erataru nastu ta sal-tzen dizkigutela. Ta guziak inder berdiñeokak dirala. Ori bai, beren sendagai oiek saltzeko, egundoko edakunde ta propaganda garestia egiten dute, ta azkenean, guretzat oso garesti datoz botika zorie-kuok.

Espainia-n dauzkagun Sendagai-lantegi benetakoak, esku-beatzak baiño goiago ez dira. Ala ere, izen orrekin legepean izendatuta dau-den lantegiak, kontu ezin ala dira. Ta gezurra dirudiena, elkar galdu bearrean, millaka etxe oiek, asten dira bakoitza bere aldetik, bere sendagaien propaganda izugarria egiten; gero sendaigai zabaltze-ko gastu bildurgarriak egiten; bitartekoie euneko onenbeste merkeago eskeintzen... eta azkenerako, sendagai oien prezioa izarretara igotzen digute.

Lau aldetara zabaldu dan botika oien edakunde, askotan alper-rik izaten da. Botikak bereala zaartzen dira, ta berriak eskeintzen asten zaizkigu, lengoak zabaldu baiño len. Emendik datorkigu beste garestitze ikaragarria.

Medikuei utseen zabaltzen dizkien sendagaiak ere, merkatu-rik onenetakoa sortzen dute. Eta or datorkigu millaka ordezkari, bakoit-zak bere sendaigai eskeintzen, millaka miazaille edo inspektore; mil-laka egunkari ta aldizkari, sendagai oien zabalkundetik bizi diranak... Papel-ujola ori gure kaltean dator azkenerako.

Negar egin bearrean, kontu orretan ordena pixka bat sortzea ez al genduke obe?

ESTORNES-TARRAK

Estornes-tarrak Euskal kultura alde lan ikaragarria egiten ari dirala danok dakigu baiñan orain atara duten liburuakin marka guziak urratu dituztela esan bearra dago.

Euskerazko, literaturaren kondaira berezi agertu berriak arrituta nauka. Eta ni bezela beste asko eta asko.

Kusi egin bear da Diputazioko liburutegira zenbat datozten liburu berri ua ikustera. Ez bait da peza ba-tekin erosten dan liburu.

«Decheparen "Heuskaru. ialdi gai mundura!" gogo-ratu arazo diti neri.

«Nork neurtu lezake Estornes-tarrak ateratako libu-ru berriaren ondorio?»

«Askotan esan izana det. Gerra zibilla bukatu zanian bure Euskalerrigatik etzegoaia txanpon zar bat ema-terik.»

«Urte illan eta itxaropenik gabeko aiek ezagutu gi-nuzenak ez genuan asko pentsatzen oraingo uzta edo kosetza. Zerhait bai, baiña ez ambeste.

«Esperantza ortarokoxe da, esperantzarik ez degone-rako. bestela ez litzake izango itxaropen.

«Orregatikantze da esperantza birtute apagarriene-takoa. Esperantzarik gabeko urte aietan, etsi gabe ale-gindu ziranak, zerhait egin zuten.

«Estornes-tarren liburu benetan ederra dala bitarte-ko, bat batean gure Euskal literaturari dagozkion kons-ultu danak toki batean egiti gitezke.

«Orain arte an-omenka ibilli bear izaten zan. Libu-ruak zoko apartetan nun arkituko.

Mekiñabat lan eratu ta bildu dute Estornes-tarrak bere ikusgarritziko Enziklopedian.

Orrelako me-a-zulo aberatsik ez degu beñiere izan. Euskerak orain arte izan dituan jarraitzale eta es-kri-tore guziet ejenplo agergerriaren ementxe dauzkagu alkartuta. Aukera guziakin.

Baiñan orretarako atrebitu egin bear aurren-aurrena. Kemen aundia bear lan ori asiera emateko. Alderdi as-ko-tako bedur-gabetasuna. Ez da lan ori utsarekin asi ta bukatzen.

Orrelako liburu baten utsegiteak gero berriz. Ta-maño ortako liburu eta dago utsegiterik gabe azken mugara ematerik. Utsegitearen bildura duanak ez du beñiere ezer egingo. Utsegiteak egiteko ere atrebitu egin bear!

Duana duanari aitortu egin bear zaio. Onela dio esara zarrak. Eta Estornes-tarrak kemen aundia du-tela enola ukatu?

Eronkariko Estornes anai ospatuari gure Eus-kalerriak eta Euskal kulturak zenbaterainoko zorra dion urteak pasatzen ikusiko da.

Mekiñabat euskaldun eta euskaldun ez diranak be-re jakin niti egarriarenentzat Estornes-tarren liburuak izan dira iturri garbi ta ugaria.

Euskal-gai guziak sakondu dituzten liburu bika-ñak.

José de Arteche

ILLARGIRA GOAZ...

Gizon ezin-egonak, naioko buru-ko min izanak ditu toki barrien bi-lla. Gure aurretiko euskaldunak —orain 26 bat mila urte?— lur-za-ti atseginagari ontara etorriak do-guz, eta ez edozelan, zori-zale ta lur barri billa baiño. Zeozek saka eraginda, etorri yuzakan ona. Kolon be, urte-mordo galantak gerago, euskaldunetz ingurututa, orrelaxe joan yekun Ameriketara: adur baten daierna, zeozek bultz-eraginda.

Goizale egiañak gabilzt orain; txo-riak, gu baiño azkarrago ikusten do-guz, eta airen antzera goiak zear egatu nai. Buru gaineko zabaldi er-ertzik bakoan milloika ta milloika izar dakusuz, eta areitan zear dagoan jakin miñez, lenengo illargira ta beste zure-gorputzetara ondoren, egaztu nai dogu. Ta gizakume kax-rrak onek, bere gora-naizko ekin bi-zian, lortu egingo dauku azkene goialdeak, zati batzuk beintzat, bere mende ta esku jartea. Ezta giti!

Gaurko, illargira goaz. Obeto esan, lantxo au argitara orduko, gi-zona —trebe ta azkar— illargi gal-ñean daukagu. Ak pozik artuko ete? Sartzetik dogu misterioz bete, ne-garti ta zoro samarra. Ta ez dakit misterio ta ezkutu orreik inok ja-kitea gurako dauanik; ez dakit bere negarren bariñ inok izatea naioko dauanik; ez dakit, ez bere zorake-riak lau aizetara zabaltzea eder izango yanonik. Gu euskaldunik ez gara, lenengotan batez be, besteent-zat zabalegiak izan oi. Gure illargi amandrea, gure antzeko baldin ba-da, ez ditu, ziurrik asko, bere biz-ka-azurrera doakizotan lurtaf gizo-nok alerki txeratsuz artuko.

Dana dagaiki, laster izango dogu angro barri. Azal ta barru zelakoa dan. Otz ala boro, gogor ala bigun dan; urez ta diamantez, aberasta-un aundiakaz beterik daukagun. Zu-gatzik, ebererik, ua da, bizirik ete dan; gizona bizi izateko lain arnas-kai, ta abar. Eguzkiaren indar-saka

diranen zain. Jakin-min gorritan! Toki askotan, begiak fiñfiñ, biotza urdui, arlo orretan an jakintsuki lan egin dabanak batez be, tekni-kazko indarketa txalagari baten ondoren, ardu ta leia bizitan dau-kazug angro arri koskor batzuk az-tertzu naiean. Ulertzekoa da. Ta ede-rra, zifizez, gaur egunean bizi izate!

Oi, illargiaz ames egin ta, barrio itxaritzen, illargia bear geure esku mende-an... Ez al da zoragarria? Ta Jainkoari eskerrak emetoko beste zio ta motibu illargiñakoa!

Ez dago lo Houston-en lan da-gien jakintsuak. Eta gizona illargial-gi orotako alegiañak ezeez, gizon orrek andik ekarriak ditun mineral ta gainerakoak —lur, arts, arri ta abar— miatu, azertu ta sailikatzeko be ardu aundia ipiñiko dabe. Ontan, egi esateko, lur ez-jakintze lan egingo dabe lenegotan; mikro-bi ta azi pozidunak euki leitezala, esan dard, angro mineralak, eta kontuz ibiltzeko dala. Baiña kontuz jokatu bear ei da emendik ara ezer txarrik ez orotako be; baztarrak kutsutu ez daitezkan. Iru izalarriak, beraz, egun askotan, ara baiño len, gela itxietan sartuta euki dabe.

Zer gutxiñat neurriarik artu ta ardu-raz zabilli arren be. bai motorrak-aitik bai zarlarren ibillikaitik, an-go ta emengo gorpuzkien artean kutsuturiko zerhait, naitaez zabal-duko da, asko luzatu barik. Baiñan bildur ta arriku danok azpratuak izango diralakoan gizon argiak. Dana dala, beñiñola sabel bat beretik urte-niko izar adiskide baten arteko ar-tu-mona eta zer-ikusiak gero ta maite-koirragoak izango dira, gizaldiz-keaz. Eta ziur-ziur gagoz, aurreran-zean ez yaku orain arte baizen ez-ku-tutusa ta iñil agertuko gure auzo-ko izarbel moti ori, gure esabak amandrea deitzen entsen illargia noski.

Gu, ostera, emen gagoz ara joan A. OÑAINDIA

HUTSUNE LARRI BAT

...Zuek diozutenez, gazteok ez dugu gauza haundirik ikasten: ez gure hizkuntzaz, ez gure kondairaz, ez ezertaz. Nola egingo, ordea? Az-kue-ren hiztegia erosten saiatu nauz aspaldi hontan: lortu ez, Aita Lhan-de'rena eskuratzen saiatu nauz se-gidan: ezin. Literatura zaharrera jo dut: ez dakit non Ebanjelioak (Harmoned'enak uste diti aurkitu ditut ustekabeen: 800 pezata eska-tu ditzkidade. Kampion'en arrastorik ez inun. Zertan gerra errudun, be-raz, dazkizun eragopenen gain hauek ere erasten diralarik?...

Hauxe idatzi diti lehenengo eus-kaltzale suhar batek. Eta egia diola ezin ukatu.

Gazte batzuk abstraziolaru joizen dutela esan ohi da. Hain batean ha-la da. Baina esku kulturaren oi-narriak bilatu nai izan ezkeru, non aurkituko diti irakurleak? Arrazoiz ascorengatik, liburu lan-tseko asko eta asko (okter ez ba-nago, bederen) asko idatu dogu, eta eroasterik ez dugu.

Hizkuntzari buruz hasteko. Az-kue-ren bi lan nagusiak aitutta dau-de: bai "Morfoloia Vasca" dala-koa, bai "Diccionario Vasco Espa-ñol Francés" dalakoa. Mitxelena-ren lana beti agerikuzin dago. Altu-be-ren "Erdetismos" deritzana aur-kitzerik ez dago. Aita Lhande'ren "Dictionnaire Basque Français" aitutta ez badago ere, nekez esku-ria ditek. Ithurry'ren "Grammaire" ez da gure artean ezagutu ere e-giten. "Euskeru"n, "Yakintza"n, "Euskal Etnologia"n, Eusko Ikaskun-tza-ren aldizkarian argitaratutako lanak, askotan oso inportanteak, ahaztuta daude zenbat liburutegi-

tan; eta gasteriak ikasi nahi ditue-larik, egiterik ez dauka.

Gauza bertsua literatura zaha-rrari buruz, nahiz gai hontan hobe-kiago orriturik egon. "Len eta Orain" sortak Larbizabal eman di-gu, eta "Auspoad" Iturrigarra, Beo-bide, Kardaberatz, eta besterik. Atsular ba dugu eskuar. Egia da. Zenbat, ordea, oraindik guztiz za-iz? Gregorio Arrue, Intxausti, Du-poisin, Pierre d'Urte, Gastelu-zar, Mendiburu bera... Mamiz hur-ri sarritan, ba dakit; hizkuntzaz ordea oso kotutan hartzekoak.

Askoz okerrago, dana dala, kon-dairari dagokionez. Nafarroa'ko is-toriarri bat dugu guztiz gailen, as-paldiko mendei buruz batez ere: Arturo Kampion. Norik eta nun eros, ordea, bere "Euskariana" k? Batek edo beste Kampion'en iritziak on-tzat eman nahi ez baditu ere, be-ste ikuskera bat mamitzeko nor ho-be Kampion bera baino? Gauza be-rra gertatzen da ondoko urteei bu-ruz ere. Euskal Herria'n proble-ma bat izan da nagusi XIX-g. mende-an zehar. Huntuaz anitz liburu idatzi bada ere (eta ez beti egiaik behar dituen bezin hotzak...), gau-ko guzteak nekez irakur ditzake, aitutta daude-ta. Etxegarai, Irujo, Arular, Oloriz, eta abar, irakurri gabe, zein bidetatik hasiko, joan dan mende nahasiko gertaerak az-tertzeko? Egiazko etendura bat de-go gure herriaren jakintzan; eta deuseztatzen saiatu behar dugu.

Ez dugu eskubiderik "tanquam tabulam rasam" bezela abiatzeko. Kultura beti izan da GIZARTE-BI-DEZ gaineratuz eta osatuz lortu dan zerbitu, kultura ez baita ma-mitzen biologiarren bidez. Ukatzuz ere egiten da, noski: gure jakintze-tan puntu askotan ukatu-behara dagoela gauza agerita da. Ezagutu gabe, ordea, nola eta zer ukatuko? Erdaldun pintatzaileek dioten be-zela esateko: "Hay que aprender primero a dibujar, para aprender despues a desdibujar". Euskal sai-leko jakintza-alorretan gauza ber-bera. Euskal araoez edozein iritzi eman ahal izateko, eginak, gerta-erak eta errealdideak ezagutu be-har dira aurrenik.

Eta hauxe da tamalgariena: gu-re herriaz eta gure kulturaz lan as-ko eta ederrik eginga baita. Ikasle berrien eskuetan jarri behar ordea. Bestela alperrik egindako lan gai-tza litzake orain artekoa.

Funtsezko liburu batzuk birrar-gitaratzea, hortara, eginkizun pre-miazkoa iruditzen zait.

LARRESORO

Zeruko Argia

Zuzendaria:
ANTONIO ITURRIA
ASTIAZARAN

Naparroko-Kantauriko ta Ara-goiko Kaputuinok argitaratuta
(Carlos III, 22. Pamplona)

DONOSTIA'n:
Oquendo, 22. Tel. 26566

ARRPIDE SARIA:
Urtekoa 190 Ptas.
Atzerrian 265 "

Aidez artu naf bada, galdetu.

HIZTEGI MODERNOA

Gauza jakina denez, bameko etsaiak bizi txaragoak izan ohi dira kanpoak baino. Gazteluak ez dira ge-hienatan etsaien oldarragatik galtzen, baizik zaindarien etsiagatik eta salkerriagatik.

Gerla psikologikoaren espezialistek maiz aipatzen duten Jeriko zelakoaren ondamena dugu hontaz xen-plorik onena, besteak beste.

Euskeraren galerez ere, eta beste ondamenaz, euskaldunaz izaten dira errudunik nagusiaren. Euskerak, da-kigunez, gure hizkuntza errotik sustitutsi nahiko luketen etsai handiak ditu, noski. Baina nahiz izate hori ez lan dez izanen, euskaldun askoren etsi, ezkonkientzia eta saldakeririk gabe.

Euskeria bere atsegin eta solaserako megaterio ikus-garritaz hartzen dutenak kalte handia egiten diote eus-kerari. Fokloristak, puristak, eta beste horrelakoak, bameko etsai dira, bestein artean, nahiz ta berak ez jakin.

Bestaldetik gaurko garaian, «kaletar fenomeno» da-lakoa, mundu guziko fenomeno izugarri hori, edo «di-mensio bakarra gizartea», hizkuntza txikien kontra-ko da, Euskal Herrian beste herrietan bezala.

Egoera horren aurrean hizkuntza fijasetzeko ta bate-ratzeko zerbitu pratikorik egiten ez badugu, ondoreak laster agertuko dira. Batez ere, gaurko ideiak eta ara-zoko erakusteko hitz egokiak arkitzea beharrezkoa du-gu.

Euskera sail guzietan sartu nahirik ari geran «inte-

letualok» begi txarrez ikusten gaituzte euskaltzale ba-zuek. Beren euskeraz gozo-gozo ta jator-jator gorde na-hi dute. Baina beren euskera eme ta gozorekin beste-rik ez badira jarraitzen, egunen batean euskera beso-etan il zalela arkituko dira.

«Intelektualk» sasi maiuak direla eta euskera mo-tela eta erdi erderatua erabiltzen dutela esaten dute. Baina, nola Marouseri buruz eta Aljebra berriari buruz idatzi hitz jatorrekin besterik?

«Gaurko hitzegi» bat nahi ta nahiezkoa dugu. Ez da posible orainarte bezala jokatzan jarraitzea.

Hiztegi modernoak amaika egin dira, izan ere, le-hengo urtetan, nahiz zientzia saillean, nahiz polittzak, filosofiaz, edertiaz eta abar. Baina guziak ezberdinak. Norik bere hiztegia egin du, eta erabill, bere gisara eta gustora. Zoritxarrez, bakoitzak bere hiztegia ulertzen du, besterik ez, eta bestenea entenditzeko, inguru-mu-rika ibili behar da. Horrelako moduz ez da irakurtze-rik, ez ulertzirik.

Beraz, berbak ez dira faltatzen, euskeraz, ugarietgiak izan baino.

Lan hontaz Euskaltzaindian du lehenho hitza. Bera da uña hontan eta egoera hontan, anarkia horretan bu-ka dezaken bakarra.

Lehen bai lehen hiztegi moderno bat, laburra bada ere, etera dezala eskatzen diogu berriz ere, Euskal-tzaindia beneragarriari.

CARLOS SANTAMARIAK